

Irakasle elebidunen sartze bilkura 2020/09/09

Maite Lagrenade (egin dituen proposamenak konferentzia denboran)

Markatu zaituen hitz edo irudia ?

« Gure gela espazio pribatu bat da, bakan (edo gutxitan) idekitzen duguna »

Idek nere gela ! « Burasoek sar ditezen eskolan ».

Aitamen hautuak : « gizarte hautua », « mundua ikusteko manera »

« eskolarekin kolaboratzeko manera berri bat »

Modelo desberdinak : ofentsiboak, sarkorrak, defentsiboak;

Errextu duten giderrak ?

Aitamen « gogo-motibapena »

Irakasle batek : « eskola berria naizelako, ez ditut aski ezagutzen burasoak »

Zer harrotzen du ene baitan ?

« Burasoak mugitzen dira gehiago eskolan sail elebiduna hautatu baitute » (ML)

Gela da nere espazioa, bainan badakit ideki behar dutala.

Kasu eman « gehienik baztertuak izaiteko irriskuan direnei » : transmizio perfil desberdina, hutsune bat badela

Eskas litzaidakena :

Jakitea zertako ene gelako burasoek sail elebiduna hautatu duten

Entseatu nahi nukeena :

Burasoekin konfinamendu denborako harreman bera atxikitzea lortu, usaiako eskolako erritmoan sartu bagira ere ;

Burasoen proiektua, motibapenak ezagutu, nik ondotik gelan araberako proiektua aurkezteko ;

Buraso bat gomitatzea gelara hilabete guziz ;

Euskal Haziak-en minuta (hizkuntzan laguntzen duten bideo laburrak, aste bakoitz, burasoer proposatuak);

Maite Etxeverria (1. zikloko inizatiba)

Maite Etxeverria :

Komunikazioa / harremana familiarekin : Burasoekin (mailak), Haurrekin (buruz buruko bideo solasaldiak, eskola berriz hastean, taldeko bideo solasaldiak gelan eta etxean diren haurren artean (3 aldiz)), Haurrak eta familiak haien artean (padleta)

Aktibitate desberdinak : Autonomian egiteko aktibitateak, manipulazioak, proiektu ttikiak, fitxak, familian egiteko aktibitateak (zumba, yoga, esku lan ekologikoak)

Material sortzea :

- "ene buruzko" bideoak (Erritualak lantzeko, lagunen izenak eta hizkien ezagutzeko, lantzen genuen ipuina ikasteko (Makaton eta Artigal metodoak erabiliz)).
- ipuin "bideotegia"
- hiztegiko bideoak : marrazki eta soinuekin, hitzik ez frantsesez.
- gelako haur guzien produkzioen biltzeko bideoak
- autonomiako kaiera aberastea : material guti behar duten aktibitateekin (KAPLA, marrazki gidatua...)

Joana Villaverde : *azkenean ezin izan zuen jin bainan huna bere lekukotasuna.*

Zergatik padleta ?

Erreski erabiltzen den orma birtuala (erakasle, ikasle eta gurasoentzat). Pertsonalizatzen ahal da (forma, pasahitza eman, komentarioak onartu, padleta ideki...) Tresna bakar huntan dokumentu desberdin anitz ematen ahal dira (testu, soinu, kantu, argazki, URL, bideo). Padleta idekia bada, gurasoek edo haurrek dokumentuak eman ditzazkete besteekin partekatzeko.

Gure harrerako orrian : 3 padlet urririk egiten ahal dira eta maite ditugun padleta formak ezarri. Ondorioz, padletak taldeko lan bat laguntzen du. Lankide baten padletetik, argitalpen bat fite kopiatzen da.

Maite Etxeverria ren aurkezpenetik partituz :

Markatu zaituen hitz edo irudia ?

Makaton, hitza eta keinuaren arteko lotura ;

Etxeetan ahozko hizkuntza sar araztea,

Desafioak baliatu hizkuntza mailan familietarik berriak ukaiteko ;

Errextu duten giderrak ?

Eskola proiektuan integratua behar da !!

Zer harrotzen du ene baitan ?

Urrun naiz : interesanta iduri du, bainan egiazko formakuntza bat behar dut hortarako ;

Entseatu nahi nukeena :

Familiei bideo gehiago igorri, euskara gehiago sar arazteko etxeetan (ipuin grabatuak, kantuak), edo keinuak/jestuak baliatuz (makaton)

I-pad -en baliatzeari formatu edukiak sortzeko, biltzeko eta partekatzeko, bai eta padlet-ri hedatzeko

Agnes Harismendy-Cécile Oyharcabal (2. zikloko inizatibak)

Agnés Harismendy :

2. zikoarentzat lehentasuna eman dut matematikeri eta euskarari. Espelikatu dut burasoer heien beharra banuela, nahi baitnuen segida bat proposatu eskola eta etxeko lanen artean.

Hortarako nere deskribapenetan hasten nintzen beti manipulazio lan batekin (etiketak, ttanttoak...baliatuz) eta gero ariketak bazituzten egiteko.

Bestalde, Acces metodoa baliatzen baitut gelan, grabatzen nituen metodo horren animazioak nere boza emanaz eta ondotik bideo moduan igortzen nituen familier. Alde batetik, hurrek usaia zuten holako animazioekin lanean aritzea gelan eta bestalde burasoentzat gai berrien lantzeko aski argi zen nere iduriko. Gainera, euskara entzuten zuten ere bai.

Euskararentzat audio grabaketak igortzen nituen edo lotura bat youtube-n album baten segitzeko eta entzuteko.

Cécile Oyharcabal :

Konfinamendu garaian entseatu naiz gelan lan egiten ginuen bezala segitzea. Hortako, padlet aplikazioa baliatu dut. Matematikentzat, Haramat fitxategia baliatzen zuten ; nik agindu guziak bideoz esplikatuz eta adibideak gehituz, itzulpena proposatuz burasoentzat, eta zuzenketa igorritz. CP-ekin, azken soinuak ikusi ditugu « audio » batzuen bidez. CE1-ekin euskara landu dugu testu labor batzuen bidez, ulermen ariketa sinple batzuekin. Burasoentzat ariketen itzulpena eta zuzenketa proposatzen nuen.

« VISIO » batzu egin ditugu elgar ikusteko eta berrikusketa ttipi batzuen egiteko. Bi asteetarik behin, burasoak telefonoz deitzen genituen ene frantseseko lankidearekin.

Markatu zaituen hitz edo irudia ?

Padlet

Adobe spark bideo

Nolaz irakasle bakoitza hain errexki (eta hain fite !) moldatu da ?

Bideo asko eginak izan dira konfinamendu denboran...

Zer harrotzen du ene baitan ?

Denbora eskasa, tresna/metodo berrien ikertzeko eta nereganatzeko ;

Beranta asko hartu dut tresna numerikoekin

Kulpabilisatze pixkat bideo guti sortzen dutalako, baina gogoia emaiten du !

Eskas litzaidakena :

Tresna berrien untsa baliatzeko laguntza bat

Formakuntza labor bat (padlet, screen cast)

Entseatu nahi nukeena :

Aitamekin harremanak garatu

Youtube kate bat sortu;

Tresna hauek baliatu (adibidez bideo komentatuak « OBS studio »-rekin, book creator)

Padlet tresna ikasle eta burasoekin (oroz gainera familien eta nere arteko harremana azkartzeko)

Paxkal Bourgoin- Joanna Larrandaburu Saussie (3. zikloko inizatibak)

Paxkal Bourgoin :

Bizitzen dugun krisiak bide berriak irekitzen ditu, behartzen gaitu irakaskuntzaren ibilmoldeari kasu egitea eta erantzun egokiak xerkatzea.

Logiziela guti erabili ditut ororen buru, ikasleen eta burrasoen lana erreteko :

- **Audacity** (soinu grabaketan egiteko, montaketa taula ximplea da) ;

- **Book Creator** (liburu numerikoen sortzeko, formakuntza on-line arin bat egin nuen etxetik, etxealdi denboran, CCDPk proposaturik) ;

- **Screen-cast o matic** (bideo ttikien sortzeko, nere ordinagailutik saguaren lana erakusteko).

Bertzalde, lotura sortzeko gure artean, WhatsApp talde bat sortu dut eta, opor denboran, « escape game » joko bat sortu dut gure etxealditik « ihes » egiteko. Euskarari leku bat egiteko, garatu dira entzumena ariketak eta idatzitako lanak, baina harreman eskasez, hizkuntza isildurik egon da maizetan...

Joanna Larrandaburu Saussie :

Harremana burasoekin scolnet-en bidez edo mailez eginga izan da (batzuentzat telefonoz).

Erabili dudana materiala 3. zikloko hurrekin :

- matematiketan zenbakiak, neurriak eta handitasunak... lantzeko egunero **erritual** gisa (fitxak plastika batean emanez, velledarekin erabiltzeko) : eguneko zenbakia, eguneko zatikia, edo eguneko zenbaki hamartarra, asteko iraupenen buruketa eta iraupenen/luzeren errituala. Zuzenketa ondoko egunean scolneten ematen nuen. Bideoak igorri ditut material bakoitza erabiltzeko.

- euskara : hitzak ikasteko (ikasien hiztegia baliatuz) eta astero bizpahiru hitz hautatuz zerrendan, ikasleek erranaldi bat mailez igorri behar zuten. Literaturan, liburu bat irakurri dute eta urratsez urrats aztertu dugu : ulermena, hiztegia eta gramatika landuz. Astero skype bat eginez ikasleen laguntzeko. Ebaluaketako ariketak baliatu ditut ere. Usmafin inspektorearen inkestak ere (hiztegi bat gehituz aldi guziz) irakurketa/ulermena bultzatzeko. Konfinamendu garaian aski landu ez dudana da ahozkoa !

Markatu zaituen hitz edo irudia ?

ScreenCast o matic

Zer harrotzen du ene baitan ?

Ez ditut 12 oron ordenagailu aintzinean pasatu nahi...

Eskas litzaidakena :

Praktika...

Tresna bat (soinu eta bideo) distantzian esplikatzen dokumento bat (adib. album edo ipuin bat);

Entseatu nahi nukeena :

Tresnak : skype, padlet, vimeo, screencast o matic...

Bideoak sortu ;

Testoen irakurtzeko moldeak eta ulermenari buruzko galdeak.

Tresna hau erabili ikasgaiak etxean sinplifikatzeko, errexiago gogoan atxik ditzazten.